

Alec Reid

Irlandako bake prozesuari
buruzko gogoeta bat

Beti egin daiteke zerbait



MANU ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

“Beti egin daiteke zerbait”

Alec Reid

Irlandako bake prozesuari buruzko gogoeta bat

EDUKIAK

- 3 SARRERA GISA** *Xabier Anza*
- 5 AURKEZPENA** *German Kortabarria*
- 7 IRLANDAKO BAKE PROZESUARI BURUZKO GOGOETA BAT** *Alec Reid*
 - 7 Gatazkaren historiari buruzko gogoeta
 - 8 “Landatzaileak”
 - 9 Okupazioari erantzuteko bi modu tradizional
 - 9 Autogobernu irlandarraren sorburua: tradizio baketsua eta tradizio militarra
 - 10 Irlandaren zatiketa
 - 10 Gizarte eskubideak 60ko hamarkadan
 - 11 IRA, nazionalisten defentsarako taldea
 - 11 Elizaren inplikazioa
 - 12 Sinn Fein solaskide politiko gisa onetsi beharra
 - 13 Ekimen politikoaren bila
 - 13 Nazionalisten arteko itunaren bila
 - 14 Gobernu irlandarraren errezeloak
 - 14 Elizaren jokabidea. Huts egindako saiakerak
 - 15 Idazkuntza
 - 16 Gutuna Ahern-en eskuetara iritsi zen
 - 16 Hume-Adams akordioa: estrategia bateratua
 - 16 Hitzarmenaren puntu garrantzitsuenak (estrategia)
 - 18 Estrategia abiaraztea: Downing Street-eko adierazpena
 - 18 IRAREN su-etena
 - 18 Jakinarazi beharreko sakoneko ideiak
 - 18 1. Gatazka ulertu beharra
 - 19 2. Elkarrizketa, baketzerako bide
 - 19 3. Oinarrizko printzipioa: gizakiaren duintasuna
 - 19 4. Herriaren adostasuna
 - 20 5. “Gizonezko-emakumezko” jarduna
 - 21 6. Espirituaren jardunbidean
 - 22 7. Ezezkorik ez onartzea

Sarrera gisa

Xabier Anza

*“Irtenbidea bertan dago. Guri bilatzea dagokigu.
Beti egin daiteke zerbait...”*

Honelaxe amaitu zuen Alec Reidek bere hitzaldia, Manu Robles-Arangiz Institutuak 2000ko ekainaren 29an Euskalduna Jauregian antolatutako mintegian emana. Hurrengo egunean, ELAko 1.000 militantek bi eguneko baraualdi bati hasiera emango zioten. Eta ekimen honetan ere, Reidek bere sakoneko itxaropen hori aldarrikatu zuen. Bai Irlandan, bai Euskal Herrian, bakea bilatzea posible baita.

Alec Reid irlandarra da. Apaiz katolikoa, eta bizitzaren gorabeherak direla eta, Irlandako gatazkan zeharo inplikaturik dagoen pertsona. Bere testigantza jatorrasuna, eta bere ekimen konprometitua nahikoa agerian gelditu ziren bere hitzaldian. Hori dela eta, Manu Robles-Arangiz Institutuak, komunikazio hura zuen eskuetan jartzea erabaki du, Euskal Herrian bizi garen egoerari begira onuragarria izango delakoan baikaude.

Zaila da testigantza horretan agerturiko ideei nagusien laburpen bat egitea. Baina sarrera gisa (hain zuzen, konklusioa izan litekeena), hurrengo hauek azpimarratuko genituzke:

Bere elizarekin batera, Alec Reidek, bere eginkizunaren atal garrantzitsu bat bakearen eta justiziaren aldeko lana izan behar zuela ulertu zuen. *“Baina behin eta berriz galdetzen genion geure buruari: zer egin behar dugu? hor geratuko gara, otoitz egiten eta bortizkeria gaitzesten?”*. Gaitzespenetik eta baloreen aldarrikapenetik haratago, Alec Reidek garbi ikusi zuen, elkarte eta gizabanako bezela, bere burua inplikatu egin behar zuela, Irlandan bake bideak jorratu ahal izateko.

"Soilik gatazkaren erdigunean egonik uler ditzakegu haren giltzak. Haragitzearen printzipioa da". Presoei egindako bisitak, politikoekin izandako bilera luzeak, ematen ari ziren pausuen idazkuntza, estrategia amankomunari egindako aportazioa... dira praile honen ekarpen konprometituaren adierazle onak...
"Haragitze" prozesu hau dramatismoz beterik ere bizi behar izan zuen. Adibidez, IRAko hainbat kide hilda gertatu eta gero, haien hileta egunean buruturiko hilketa baten erdian, Alec Reid, gorpu baten ondoan munduko telebista kate guztietan agertu zenean bezela.

"Egia denarekin guztiok ados egon behar dugu. Irtenbidea gatazkari buruzko euren ikuspegia aurkezten diguten pertsoneri entzunez lortzen da". Alec Reiden aburuz, bakea justiziaren emaitza da. Besteei entzun beharra dago pake iraunkor bat gauzatu ahal izateko.

"Herriaren aldeotasuna eta adostasuna da benetako irtenbidea. Alderdi abertzaleek adostasuna lortu zuten eta herriari azaldu zioten. Eta herriak alderdiak bultzatu egin zituen. Herriaren jarrera baita boterea".

"Zinez uste dut gizonek, edo bereziki gizonek antolaturiko gizarte orotan, arazoak sortzen direla". Alec Reidek "gizonezko-emakumezko" jarduna zeritzon. Zenbat gatazka, historiaren zehar, bake bidetik bideratu ahal izango ziren, erabakiguneetan emakumeek parte hartu izan balute?

Eta bukatzeko, itxaropenerako deia: *"Ez dezagun ezezko erantzunik onartu; beti dago beste irtenbiderik, horixe gure patuaren osagaietako baita".* Ez dago herririk bortizkeriazko historia batera kondenatuta dagoenik.

"Beti egin daiteke zerbait"... "Berriz ikusiko dugu elkar".

Horixe da espero duguna.

Aurkezpena

German Kortabarria

Gaurkoan Alec Reid dugu guren artean. Gizon honek ez du kanporako proiektio handirik izan. Eta berari buruz ezer gutxi dakigu, Irlandako bake prozesuan garrantzi nabarmena izan duena eta baduena ez bada. Apaiz erredentorista dugu, Irlandan jaioa, eta ogeita hamar urte luze daramatza Clonard Komentuan, Belfasten. Zentro erlijioso hori (Irlandan erreferentzi gune garrantzitsua dena) Belfasteko alde gatazkatsuen mugatzen duen murruren ondoan dago, urteotan zehar aurkapen egoera bortitzenak gertatu diren alderdian, hain zuzen ere. Leku horretako baldintzagarrietako beste bat egoera ekonomiko eta sozial korapilatsu eta zaila da. Bertan daraman denbora osoan, gizon hau Irlandako gatazkarentzako konponbide bila ibili da. Urteotan une hobek eta txarragoak izan dira, tartean itxaropen egoerak batzuetan eta, beste batzuetan, ate guztiak itxita irtenbiderik ez zegoela ematen zuela. Baina, unerik txarrenean ere, irizpide batek artatu du bere lana (ez banakoa, Elizaren baitakoa baizik); hona hemen: *“unerik txarrenean ere, beti egin ahal da zerbait”*.

Euskal Herrian ere badugu geure gatazka. Batzuetan egoera zail azaltzen zaigu, ez dugu irtenbiderik sumatzen, eta on egin izaten digu kanporantz begiratzeak. Oroitzen naiz, Irlandako Foroa (Lizarra-Garaziko Adierazpenaren sorburua) eratu genuenean, honelako gogoeta bat genuela abiapuntu: *“badirudi Irlandan konponbidea aurkitzen ari direla, konponbideranzko aurrerapausoak ematen ari direla. Baikortasun mezua da guretzat; saia gaitezen Irlandako auzitik ahal beste ikasten”*. Eta, horretan oinarriturik (baina ez horregatik bakarrik, jakina) Lizarra-Garaziko Adierazpena sortu zen, oso aurrerapauso garrantzitsua, izan ere.

Gaurkoan beste esperientzia bat ezagutuko dugu, Irlandakoa, Alec Reid bizitzaren 30 urteko ikuspegiaz. Bere eginkizuna Asisko San Frantziskorena bera izan da: "bakea eta ontasuna zabaltzea"... aurkapen egoera latzetan ere. Irlandako herritarrentzako bakea eta ontasuna dira beraren lanaren xedea.

Irlandako bake prozesuari buruzko gogoeta bat

Alec Reid

Lehenengo eta behin, esker ona adierazi nahi dizuet mintegi honetan parte hartzera gonbidatzeagatik. Benetako ohorea da niretzat. Saiatuko nahiz zuentzat ahalik eta baliagarrien izaten, iritzi eta esperientzien elkartrukean oinarrituz, benetan ziur nagoelako zuek irlandarron esperientziatik ikas dezakezuen bezala, geuk ere ikas dezakegula zeuenetik. Solasaldi honen izenburua “Irlandako bake prozesuari buruzko testigantza” da edo, nahiago baduzue, “Irlandako bake prozesutik barnera ditzakegun ikaspenak”; ikaspenak, bai horixe, irlandarrak eurak ere oraindik ikasten ari direnak.

Irlandako bake prozesua taxutzean, bake bide justu eta demokratikoa nolabait aurkitzea izan da helburua. Asmoa partaide guztien eskubideak bateratu, orekatu edo asebetetzea da, alderdi guztien aldeketasuna lortzekotan.

Ziurrenik, Irlandakoa historiako gatazka antzinakoena da, Europan bai behintzat, duela 700 edo 800 urte hasi baitzen. Nikaraguan misiolari dabilen irlandar batek honako istorio hau kontatu zidan. Denok dakizuenez, herrialde horretan oso gatazka

bortitza dago. Bera gerrillako buruzagi bat indarkeriarik ez erabiltzeko konbentzitu nahian zebilen, bere arrazoiak azaltzen zizkiola. Gerrillariak, aldiz, hauxe erantzun zion: “Aita, entzuten zaitut, baina arazo asko dago eskatzen didazuna egiteko. Hala ere, berme bat eman ahal dizut: ez dugu borroka armatua 700 urte iraunaraziko”. Beraz, hauxe esan nahi izan zion: Nolatan zatoz niregana, zeure herrialdean, Irlandan, duela 700 urtetik hona gauza bera egiten ari badira?

Gatazkaren antzinatasuna nolabait irudikatzea izan da nire asmoa, gurea bezalako gatazka luze bat konpontzerik badago, nire ustez, edozein gatazka konpondu ahal da eta.

Gatazkaren historiari buruzko zertxobait

Baliteke hemen zaudetenok Irlandako gatazkari buruz zerbait jakitea. Baina, arazoa are argiago ikus dezazuen, zehaztu nahi nuke Irlandako gatazka hasieran, funtsean, irlandarren eta ingelesaren arteko gatazka zela. Mendeak igaro ahala,

britainiarrek eutsi egin zioten gatazkari, Irlanda demokraziaz aurka okupatuz.

Irlandaren okupazioa interesak eta babes gurak eragin zuten. Horrek zuzeneko lotura zuen Britainia Handiaren etsai historiko birekin: Frantzia eta Espainiarekin, alegia. Arrazoi geo-estrategikoak zirela eta, britainiarrek ez zuten nahi Irlanda potentzia horiek britainiarrei mehatxu eta eraso egiteko erabili ahalko zuten base bihurtzerik. Hori galarazteko, okupazio militarra ez ezik, "landaketak" deritzegunak ere ezarri zituzten.

Batasun egintza (1801ean Irlanda Ingalaterrarekin lotu zuena) Frantziak Irlandari iraultza egiten laguntzeko indarrak eman ostean gertatu zen, 1789an. Azalpen honekin, ingelesak eta irlandarren arteko gatazkaren hasiera eta funtsa argitzea da nire asmoa, ingelesek Irlanda okupatu zutenekoa, alegia.

"Landatzaileak"

Ingelesen strategiaren oinarrietako bat gure lurraldera kolonoak ekartzea "landatzaile" deritzegunak (zituzten lurak zirela eta) izan zen. Eskozia eta Ingalaterratik ekartzen zuten Irlandara jendea, irlandarren lurak konfiskatu, okupatu eta lantzeko xedez. Kolonizazio modu bat izan zen.

Denboraren igaroaz, landatzaileok Irlandako emakumeekin ezkondu ziren eta haietako gehienak irlandarrak eurak baino irlandarrago bihurtu ziren. Baina Irlandako

Iparraldean, garai hartan (XVII. mendean) lurralde handienetakoa zelarik, kolono horiek sekula ez ziren integratu eta bereiz mantendu ziren. Horiexek dira gaur egun unionista izenaz ezagutzen ditugunak. Ipar Irlandako unionisten komunitatea. Unionista deitura Ipar Irlandaren eta Britainia Handiaren arteko lotura mantendu guratik datorkie, nazionalistek, aitzitik, Irlandaren independentzia (Ipar Irlanda Irlandarekin baturik) lortu nahi dutela.

Hortaz, gatazkaren bigarren izariaren berri eman nahi dizuet: hots, Irlandako gatazkaren baitan, unionisten duela 300 urte etorritako kolono edo kolonizatzaileen ondorengoen eta bertako irlandarren arteko aurkapena.

Irlandarren eta ingelesak nazioarteko gatazka gainditzea lortu zen ia. Izan ere, arazo hori sortu zen garaian Europako nazioak arrazoi ekonomiko eta politikoak medio borrokatzen ziren elkarrekin eta, dakizuenez, Europako Erkidegoa horrelako arazoak desagerrarazteko taxutu zen, hain zuzen. EEEren sorreraz, desagertu egin zen Ingalaterrak Irlanda okupatzeko zuen arrazoi historikoa. Baina oraindik bere horretan zirauten Irlandaren okupazioaren ondorioek, hain aurkaturik zeuden komunitate unionista eta nazionalistaren artean.

Beraz, antzina nazioarteko gatazka hertsia zena barne gatazka moduko zerbait bihurtu zen ondorengo garaian. Horrelaxe segitzen du gaur ere.

Okupazioari erantzuteko bi modu tradizional

Bestalde, bada Irlandako bake prozesua ulertzeko funtsezko beste alderdi da: Irlandak, bereziki Frantziako Iraultzatik (eta lehenagotik ere), ingelesen okupazio/inbasioari erantzuteko erabili dituen bi bideak, hain zuzen ere. Horietako bat politika baketsuaren baliabideetan zetzan eta bestea, aldiz, politika militaristaren bideetan erraz adieraztearren.

Tradizio horietako lehenengoak akordioen bidez bilatzen ditu Irlandako gatazkarentzako konponbideak. Beste tradizioaren ikuspuntutik politika baketsua irlandarrek gauzatu ahal zuten moduan ez zen behar bezain eraginkorra gure eskubideen onespina eta bertako biztanleon aintzatespena lortzeko aurrerapausoak emateari begira. Hortaz, bigarren tradizio horren babesleen iritziz, estrategia dinamikoagoa behar zen ingelesek aintzat har gintzaten lortzeko. Bi tradiziook, militarista eta baketsua, elkarrekiko borrokan aritu izan dira etengabe.

Daniel O'Connell, Parnell eta beste hainbat izan ziren tradizio baketsuaren aitzindari nabarmenak. Beste aldean, finion deritzenak eta 1960ko matxinadako buruzagiak ditugu, nolabait esateko, tradizio militarrenaren ordezkari zirenak.

Xehetasun historiko gehiegi eman nahi ez badizuet ere, oso ideia garrantzitsu bat aipatu nahi dizuet erresistentziari buruz: irlandarren erantzuna ingelesei zuzendu

zaie beti. Nazionalistek inoiz ez diete unionistei bortizki aurre egin (errepublikarrek eurek ere ez zieten unionistei bortizki aurre egin). Helburua ingelesak izan ziren beti. Baina, lehenago esan bezala, bi bide zeuden: baketsua eta bortitza. Eta erantzuteko moduen arteko zatiketa horrek benetako aurkapena eragin du bi tradizioon artean historia osoan zehar.

1969an inflexio puntua etorri zen, gatazkaren garapen une horretan bortizkeria kaleetaraino hedatu baitzen. Lehenago ere ikusia zen jadanik indarkeria kalean, baina 1920 eta 1961 arteko aldian ez zen horrelakorik gertatua. Gatazka politikoak hortxe zirauen, baina gatazka politiko hutsa zen. 1969ko berragerpen hori oso era errazean azaltzeko Ipar Irlandako komunitate nazionalista gutxiengoa izateak eragin zuen.

Azter dezagun hori pixka bat zehatzago.

Autogobernu irlandarraren sorburua: tradizio baketsua eta tradizio militarra

XX. mendeko lehen urteetan, tradizio baketsuak, Irlandari nolabaiteko autogobernua onar ziezaion konbentzitu zuen Gobernu britainiarra: Erresuma Batuaren atal izango zen, baina bere Parlamentua zuela. Baina politikari bakezaleen lorpen horren aurrean, indarkeriaren aldekoak armak eskuratzen hasi ziren 1912an, gutxi gorabehera.

Dena den, Parlamentu Britainiarrak Autogobernu Akta onartu zuen arren, Lehen Mundu Gerraren hasierak galarazi egin zuen hura indarrean has zedin. Eta gerra amaitu arte itxaron behar izan zen. Bitartean, indarkeria militaristaren aldeko tradizioak matxinatzea erabaki zuen 1916an, Mundu Gerra (1914-1918) gori-gori zebilela. Dublineko matxinadaren emaitza beraren 16 buruzagiren exekuzioa izan zen. Agidanez, irlandar herria matxinada haren aurka zegoen, orokorrean, bide bortitzak arbuiatu eta tradizio baketsuaren aldekoak zirelako. Baina exekuzio horiek aldarazi egin zuten irlandarren jarrera, indarzaleen alde ipiniz.

Une horretan, Jhon Reedman, tradizio baketsuaren buruzagia Parnell-en ondoren, irlandarrei Lehen Mundu Gerran Armada ingelesaren alde borrokatzeko dei egitearen alde azaldu zen.

Jendea erotu egin zen hura entzunda eta horrek bere herriaren sinesgarritasuna galarazi zion Reedmani. 1918an hauteskundeak izan ziren eta Alderdi bakezalea, ordura arte gehiengoa biltzen zuena, desagertu egin zen eta Sinn Fein alderdia sortu, bai eta hauteskundeak irabazi ere. Beraz, Sinn Fein irlandarren ordezkari handieneko alderdia bihurtu zen.

Irlandaren zatiketa

Azkenik, 1921ean, ingelesen eta irlandarren arteko ituna sinatu zen. Sinn Feinek eta bere aldekoek hauteskundeak

irabaztean, Irlandako Parlamentua eratu zuten, ingelesera ezertarako ere hurbildu gabe. Bere armada zuen, IRA izenekoa, eta ingelesen aurka borrokatzen ziren. 1920 eta 1921 artean, ingelesek su-etena egin eta bakea ezartzea erabaki zuten. Baina bake hori, badakizuenez, Irlandaren zatiketan funtsatzen zen. Horrelaxe “ebatzi zen” Irlandako auzia: 6 konterri (bi heren) eman zizkieten nazionalistei eta gainerakoa (Ipar Irlanda) unionistei: Irlanda zatiturik geratu zen. Agian, akordio horrek izan zezakeen bideragarritasunik. Baina ez zuen izan, iparraldeko komunitate nazionalistak komunitate unionistak jazarri bizi behar izan duelako 1920z geroztik (gaur arte).

Gizarte eskubideak 60ko hamarkadan

Ez ditut zehaztasun guztiak aipatu nahi, baina garrantzitsua da azpimarratzea iparraldeko nazionalistak hirugarren mailako herritartzat hartu izan dituztela eta inondik ere ez herritar arrunt gisa.

1968an, gizarte eskubideen aldarrikapenez batera gogoratu Martin Luther Kingen mugimendua Estatu Batuetan, Ipar Irlandako nazionalistek euren gizarte eskubideak lortzeko martxak antolatzeari ekin zioten. Eta zapalkuntza itzela jasan zuten Ipar Irlandako gobernu unionistaren aldetik.

Ez dut historiari buruz luzeegi jardun nahi, baina oso garrantzitsua eta behar-beharrezkoa da gatazka bat konpontzen saiatuko bagara. Tokiko herritarrak

kontrolatu nahi dituen komunitate kolonial orotan, zer egiten da bertakoak arazoak sortzen hasten badira. Errepresioaren bidez isilarazten saiatzen da.

Nazionalistak gizarte eskubideen alde desfilatzen hasi zirenean, lealisten erasoak jasan behar izan zituzten. Hartu egin zuten kalea, hainbat eraso gertatu zen hiriko zenbait aldetan eta horrek bortizkeria izugarria sorrarazi zuen. Pertsona asko, gazteak batez ere, asasinatu ziren. Bereziki Belfast hirian. Eta nazionalisten aldeei eraso egiten zirenean, haiek ez zuten inolako babesik, Poliziak ez baitzituen defendatzen. Orduan, berriz azaldu zen IRA, nazionalistak eraso horietatik babesteko.

IRA, nazionalisten defentsarako talde

Honetaz ez naiz luze arituko, baina arrazoi batzuk aipatu nahi ditut 1969an indarkeria berragertu izanari buruz. Ipar Irlandako komunitate nazionalista ez zuten behar bezala tratatzen: euren gizarte eskubideak aldarrikatzen saiatzen zirenean, lealisten jazarpena eta eraso fisikoak nozitu zituzten; ez zeukaten inolako babesik, Ulsterreko Poliziak inola ere ez baitzituen defendatzen. Ondorioz, IRA berrantolatzen eta armak eskuratzen hasi zen. Horrelaxe itzuli zen bortizkeria Irlandako kaleetara. Monasterio batean bizi naiz eta une honetan, hortxe kalean, lehegailuak baleude bezala bizi izan nuen...

Elizaren inplikazioa

Ezinezkoa zen gatazka horretatik at geratzea; beraz, geuk ere hartu genuen parte, tiro eta lehegailu hotsen erdian. Kartzeletako eta presoan egoeran ere esku hartu behar genuen adibidez, meza ematen genuen igandero kartzeletan. Presoak ezagutzen hasi ginen. IRA bera eta Sinn Fein ere ezagutu genituen, toki mailan, monasterioaren aldameneko kaleetan. Eta goragoko mailetakoak ere ezagutu genituen, batez ere kartzeletan, bertan egoten ziren-eta haietako buruzagiak.

Indarkeria egunerokoa zen, egunero-egunero gertatzen baitzen garai hartan. Eta Eliza bertan zegoen... Zer egin?

Eliza tradizio bortitzaren aurka azaldu da beti. Zer egin zuen Elizak? Lehenengo eta behin, gaitzetsi. Egunero, tiroketa edo leherketaren bat gertatzen zen aldioro, Elizak, goi mailetatik hasita parrokiataraino, gaitzetsi eta birgaitzetsi egiten zuen bortizkeria.

Kristau elkarrekin bakearen alde otoitz egin zezaten elkartzen ere saia gintezkeen. Argi zegoen gaitzespenek ez zutela inolako eraginik, ez ondorerik. Otoitzaren bidez lortzea espero genuen. Eta, berez, Irlandan gaur dugun bakea otoitzari zor diogulakoan nago. Baina behin eta berriz galdetzen genion geure buruari: zer egin behar dugu? Hor geratuko gara, otoitz egiten eta gaitzesten?"

Sinn Fein solaskide politiko gisa onetsi beharra

Sinn Fein eta IRAko kideekiko hurbilpen hori hasi zenetik 70eko hamarkadan zehar argi ikusi genuen ez zegoela ezer egiterik gatazkan parte hartzen zuten gainerako alderdiek Sinn Feinekin hitz egin ezean, bera solaskide politikotzat onetsirik. Eta, egia esan, arrakasta izan genuen hainbat gauzatan.

1975 eta 1981 bitarte, lau bat ekimen ezberdin gauzatu genituen pertsona batzuek Sinn Feinekin hitz egin eta indarkeria geraraztea lortzeari begira. Lealitek hitz egin zuten haiekin. Unionistek ere haiekin hitz egitea lortu genuen. Zeharka bada ere, Gobernu irlandarrarekin ere mintzatu ziren.

70eko hamarkadaren amaieran 1978-79an, batez ere IRAk su-etena aldarrika zezakeelako aukera sumatu zen. Baina oztopo bat azaldu zen, oroitzen bazarete, presoek egoera politikoa zela eta. IRAko presoek preso politikotzat har zitzaten nahi zuten, gaizkile arrunt gisako tratua jaso gabe, eta aintzatespen hori lortzearren borrokatu ziren. Baina Gobernu britainiarra ez zegoen jite hori onartzeko prestu.

Sinn Fein edo IRAko presoek ez zuten kartzelako uniformerik jantzi nahi, hori besterik ez. Eliza eskari horren garrantzi txikiak konbentzitzen saiatu zen bai Gobernu britainiarra, bai Sinn Feineko presoak ere. Baina gose grebari ekin zioten eta haietako 10 hil ziren Bobby Sands haien artean. Horixe besterik ez zuten eskatzen:

kaleko arropa normala janzte, kartzelako jantzien orde.

Era horretako gatazken ondorioz giroak okerrera egin zuen. Ziurrenik lortuko zatekeen IRAren su-etena, baina ez zen kartzeletako arazo hori konpontzerik izan. Beste 10 urte iragan eta 1.000 hildako gehiago behar izan ziren artean, kartzeletako arazoari trataera egokia ez emateagatik.

Garai hartan gaixo egon nintzen urtebetez eta aldi horretan ez nintzen gatazkaren muinean ibili. Urtebete geroago, kartzeletako arazoak bere horretan zirauen eta egoera oso bortitza zen oraindik. Medikuek istilu larregitan ez sartzeko agindu zidan, lan gogorregirik egin ez eta lasai ibiltzeko, osasuna zela eta.

Apaiz arrunta izaten saiatu nintzen, baina halako egun batean, IRAko kide bat hurbildu zitzaidan eta IRAk gizon bat harrapatu eta hiltzeko asmoa zuela esan zidan. Komunitate unionistako soldadu ingeles bat zen. IRAko kide hura, bere baitan, ez zegoen ados pertsonak euren ogibidean zihardutela eta desarmaturik zeudela bahitzearekin; ez zegoen ados, baina egin behar zuen. Hortaz, berarekin joan nintzen, baina, tamalez, hainbat kontaktu izan ondoren, bi ordu eman genituen besteak zeuden tokira iristen. Heldu ginenean, hauxe esan zidaten: "Berandu da; hilik dago, tiro egin diote ". Horrelaxe sartu nintzen, nolabait, berriro gatazkan, eta Gerry Adamsekin hitz egitea

erabaki nuen, bera zen-eta Sinn Feineko buruzagia.

Argi utzi nahi dut “ni” diodanean, erredentoristen ordenaz ari naizela. Neure ordenako Bake batzordearen izenean dihardut eta, hedaduraz, eliza katolikoaren izenean ere. Niri gauzak egitea eskatzen zait; beraz, ez naiz banako pribatu bat horrelako gatazketan esku hartzen dudanean.

Ekimen politikoaren bila

Beraz, Gerry Adamsengana jo nuen 1972 inguru eta hauxe esan nion: Zer egin dezakegu egoera hau gerarazteko? Alde batetik, IRA bere jarrera aldatu nahian zebilen. Eta honela esna nion: “Bada, Eliza da egoera honetan esku hartzeko agintea, estatusa, sinesgarritasuna eta komunikazio aukerak dituen erakunde bakarra “. Adamsek esan zidanez, modu bakarra zegoen IRA gerarazteko: gatazka armatuarentzat horrelaxe deitzen baitiote haiek irtenbide baketsua lortzea.

Nazionalisten arteko itunaren bila

Haiek gatazka armatuarentzako irtenbide sinesgarri gisa onartuko luketen alternatiba politikoa bilatu behar genuen, eta hauxe esan zidan: “Irtenbide bakarra Alderdi Nazionalistak, nazionalistak ordezkatzan dituzten alderdiek hau da, Gobernu irlandarrak hegoaldean eta SDLP-k (Jhon Hume-ren alderdiak) iparraldean eta Sinn Feinek gatazka bide demokratikoz

ebazteko estrategia bateratua adostea da”. Alderdi nazionalisten estrategia bateratu horrek gatazkarentzako irtenbide demokratikorantz aurreratzeko bezain dinamika politiko ahaltsua sortzea zen helburua. Alternatiba hori gauzatuz gero, Sinn Fein IRArengana joan eta hauxe esango zion: “geldiarazi ahal duzue borroka armatua, alternatiba politikoa daukagulako eta zuen borroka armatua baino irtenbide hobea eta eraginkorragoa delakoan gaudelako”.

Horixe zen asmoa, zentzuzkoa, nire iritiz. Badakit bi hizkuntza ezberdinetan mintzatzen ari ginela. Bestela esanda, Gerri Adamsek hauxe adierazi zuen: “Kontua ez da gaitzestea, salatzea... IRA konbentzitzeko modu bakarra “alternatiba” horixe zen berba handia politiko bat aurkeztea da, gutxienez jardunbide militarra bezain ona dena”.

Bi jardunbideren historia dugu honakoa. IRAk bere ustez, egoerak aurrera egin zezan, beharrezkoa zen jardun militarri eusten zion. Jardunbide bakezalea ez zen nahikoa. Baina Gerry Adamsek hauxe berresten zuen: “Alderdi nazionalistak elkartuz gero, antolatu egin ahal izango dugu behar bezain ekimen indartsua “. Eta ondoren: “Beraz, ez dago ezelako modurik neuk edo Sinn Feinek estrategia baketsua eratu ahal izateko, Gobernu irlandarrarekin eta SDLP-rekin hitz egiterik ez badugu “.

Gobernu irlandarraren errezeloak

Garai hartan ez Irlandako Gobernuak, ez SDLPk ez zuten Sinn Feinekin hitz egin nahi, IRAk bere jardunbidea utzi ezik. Hortaz, bai Gobernu irlandarra, bai SDLP ere, IRAren kontrako etengabeko gaitzespenean aritu ziren. Zatiketa itzela zegoen, batetik, Sinn Fein eta IRAren eta, bestetik, bakezaleen, Gobernu irlandarraren eta SDLP-ren artean. Eta gu, artean, behin eta berriz geure buruari galdezka: “zer egin dezakegu?”. Sinn Feinen esanetan, “IRArri aurkeztu ahal izateko irtenbide baketsu bat lortuz gero baino ezin dugu gerra gerarazi; eta ezin dugu irtenbide baketsurik taxutu, Gobernu irlandarrarekin eta SDLP-rekin hitz egiterik ez badugu”.

Beraz, buru-belarri ekin genion talde horietako kideak Sinn Fein eta IRArekin hitz egin zezaten konbentzitzeko lanari. Urte asko eman genituen horretan.

Elizaren jokabidea. Huts egindako saiakerak

Hauxe zen gure jardunbidea.

Eliza, nolabait esatearren, errazle izatea nahi genuen. Elizak Gobernu irlandarra eta SDLP gonbidatuko zituen eta hauxe esan zien: “Beno, geure egotzi errua; terroristekin mintzatzea leporatzen badizuete, Elizari egotzi ahal diozue errua, Elizak gonbidatu zaituztelako. Ados?”. Hortaz, Elizak eta gotzainak (Thomas kardinaleak) aurrera egitea lortu genuen.

Gotzainak oso ondo egin zuen eta Elizaren izaera errazlearen aldeko ekimena bultzatu zuen. Prestu zegoen Sinn Feinen eta Lehen Ministro irlandarraren arteko bilera antolatzeko.

Gobernu irlandarrarengana jo genuen, baina ez genituen guztiz konbentzitu ez ditut xehetasun guztiak aipatuko. Lorpen batzuk erdietsi arren, ez genuen Gobernu irlandarrak Sinn Feinekin hitz egin zezan lortzerik izan. SDLP alderdian ere, gure ustetan ekimenarekiko harkorrangoak izan zitezkeen pertsona batzuegana hurbildu ginen. Jhon Humek berak ez zuen Sinn Feinekin hitz egiteko astirik edo gogorik. Gu saiatu egin ginen. Horixe zen Elizak garai horretan zuen eginkizuna.

Irlandako Elizbarruti garrantzitsuenetako bateko gotzain laguntzaileak, bi artzapezpikuren onespenez, hainbat bilera egin zuen Sinn Feinekin, eta Gobernu Irlandarra eta SDLP alderdia IRArekin hitz egin zezaten konbentzitzeko ahalegin guztiak egingo zituztela adostu zuten. Baina, lehen esan bezala, huts egin genuen Gobernu irlandarrarekin eta, baita, SDLP barruan harkorrango egon zitezkeela uste genuen aipatu pertsona horiekin.

Beraz, azkenean, honakoa esan genuen: “Ez dugu lortu, ez, baina egin dugun guztia idatzi eta idatzitakoaren gainean lan egingo dugu”.

Idazkuntza

Bat-batean erabaki genuen: “Aukera bat dugu hemen; idatziz adieraziko dugu guztia eta, ezetz esaten badute, berariazko testigantza egongo da. Ados?”. Horretan pentsatzen dudanean, ez dakit nola ez ote ginen erotu edo nerbioek jota geratu.

Mintzalditxo hau prestatzerakoan, orain dela egun batzuk, dokumentazio bila nabilela, orduan idatzi genuen gutuna aurkitu nuen. Ministerio osoaren eta bertara gonbidatutako gotzain guztien izenean idatzi nuen. Lehen Ministroari zuzenduriko gutun bat da. Irakurri gabe eduki dut 12 urte hauetan eta oraintsu aurkitu dut.

Esan zitekeen guztia esan egin behar zelakoan nengoen, ezertxo ere aipatzeke utzi gabe. Kontatuko dizuet gutunari buruzko zerbait. Hamabost orri ditu eta, agidanez, ezin dut osorik irakurri. Aipatu nahi dut, ordea, honelako gutun bat idaztean, oso zehatz izan behar dela. Nire ikuspuntutik, garai hartan, hainbat gizarte eragile elkarrekin mintza zitezen konbentzitzeko atazan hiruzpalau urtez huts egin ondoren, garrantzitsuena frogak paperean islatzea zen. Lerroalde batzuk irakurriko dizkizuet, orduan esaten genuena argitzekotan.

Oroitzen naiz SDLP-n, Jhon Humeren Alderdi Laboristan, gauza bera esan genuela. Gutunean argi azaltzen da hori, bai eta Sinn Feinen esanak ere, hau da, IRArekin ez zela aurrerapausorik emango, gainerako alderdiekiko elkarrizketa eta

eztabaida antolatzerik izan ezean. Eta horixe jakinarazi nahi nion Lehen Ministroari. Paper hauetan, ordura arte izandako negoziazioen emaitza deskribatzen da.

Elizaren ordezkarien iritziz, borroka armatuaren eta berarekin zekartzan ezbeharren amaierara heltzeko modu bakarra borroka armatu horren ordeztu erabiltzeko benetako irtenbide politikoa eratzea ahalbidetuko zuen elkarrizketa sortzea zen. Alternatiba hori zehaztasunez planteatu behar zitzaion IRAri. Horrelaxe idatzi nuen gutunean.

Elizaren ordezkariak, jakina, horren guztiaren ondorioez kezkatuak zeuden. Baina, aldi berean, Sinn Feineko buruzagiek haiekin batera lan egiteko erakutsitako prestutasun handiak animaturik ere. Sinn Feinek behin eta berriz adierazten baitzuen “lagundu egingo dizuegu”.

Norberaren iritzia edozein izanik ere, ohartzen ginen aurrera egin ahal izateko, Sinn Feineko buruzagiek aurkeztutako aukerekin lan egin behar genuela. Eta honako hau zen alternatibaren funtsa: “Hego eta Ipar Irlandako alderdi nazionalistak politika nazionalista bateratua taxutu eta, ondoren, elkarrekin gauzatzea ahalbidetuko dieten elkarrizketa eratzearekin ados egotea, betiere gatazka konpontzeko bide eta helburuei helduz, bidezko bake iraunkorra lortzeari begira”. Guztiek, nork bere identitateari uko egin gabe, indar politikoak batu eta

adiskidetzea eta bakea lortzearen aldeko kanpaina bateratua egitea esan nahi zuen horrek.

Eta are gauza gehiago ere azaltzen dira gutunean. Orrialde asko ditu. Lehen Ministroa bortizkeria, heriotzak eta suntsipena gerarazteko aukera bazegoela ohartaraztea zen gure asmoa. Aukera hori Sinn Feinengandik zetorrela, bai, baina hitz egin beharko zuela Sinn Feinekin eta lan egin beharko zutela borroka armatua ordeztzeko politika bateratu bat eratzeko. Espero dut zuek ondo ulertzea azaldu nahi dudana.

Gutuna Ahern-en eskuetara iritsi zen

Eskutitzaren eraginez, nirekin hizketan aritu zen Ahern-en aholkulari politiko nagusia (garai hartan, Ahern Irlandako lehen ministroa zen; aipatu behar da, hala ere, gaur egun arazo asko dituela ustelkeria egotzi zaiolako, egunkari guztietan ageri dira salaketak eta auzitegietan dago). Eta bera, nire bitartez, Sinn Feinekin harremanetan izan zen. Hau da, ez zuen haiekin zuzenean bilerarik egin nahi, baina prestu zegoen nolabaiteko kontaktua izateko.

Bestalde, Jhon Humeek eskutitza jaso zuenean, telefonoz deitu zidan biharamunean. "Joan egingo naiz" esan zidan. Gerry Adamsekin bilera egitea erabakia zuen. Pare bat aldiz elkartuta, alderdien arteko bilerak antolatzea erabaki zuten. Ordezkaritzen arteko bilerak izango

ziren uste dut lau ordezkari zirela, alderdi bakoitzetik bat-. Gogoratzen dudanez, sei aldiz elkartu ziren, baina IRAk eutsi egin zion indarkeriari. Hain presionaturik zegoen Jhon Hume ezen bertan behera utzi behar izan baitzituen ordezkari bilera horiek, baina mantendu egin zituen pribatua Gerry Adamsekiko bilerak. 1978tik 1993ra bitarte iraun zuten, funtzionatu egiten zuela erakusten duena.

Hume-Adams akordioa: estrategia bateratua

Denboraren igaroaz, Gerry Adams eta Jhon Humeek estrategia bateratu bat adostu zuten. Dublin eta Gobernu irlandarra ere inplikaturik zeuden, gertatzen ari zenari loturik segitu zuten eta. 1993ko maiatzean hitzartu zen estrategia bateratuari buruzko azken akordioa, IRAren aldetik su-etenaz erantzun zitzaiona.

Laburbilduz, orduko egoera hartan, Dublinek (Ahern lehen ministroaren Gobernu irlandarrak), Alderdi Laboristak (SDLPk) eta Sinn Feinek (Gerry Adamsek) lortua zuten bakeranzko estrategia bateratu bat adostea eta, Sinn Feinen ustez, IRAk onetsi egingo zuen borroka armatua ordeztzeko alternatiba gisa.

Hitzarmenaren puntu garrantzitsuenak (estrategia)

Orain hitzarmen horren atal garrantzitsuenen zerrenda emango dizuet

ez da luzeegia. Puntu gehienak ahoz aho ibili ziren, idazki "ofizialik" ez dagoen arren. Nik baneukan gertatzen ari zenaren berri eta, azkenean, modu formalean idatzi nuen estrategia alternatiboa.

1. Lehenengo puntuan estrategia berriaren, hots, estrategia baketsuaren helburu nagusia aipatzen zen: gatazkaren konponbide demokratikoa, alegia, gatazkarekin zerikusia zuten alderdi guztien eta Gobernu irlandar eta britainiarren arteko elkarrizketan, negoziazioan eta akordioetan funtsaturikoa. Aipu hori oso garrantzitsua zen: ez zen arazoarentzako irtenbide nazionalista bat. Bestela esanda, irtenbide demokratikoa zen, oso kontu garrantzitsua dena, mundu guztia errespetatzen duelako. Irtenbide demokratikoa izan behar zuen, ez berez nazionalista, demokratikoa, hau da, elkarrizketa, negoziazio eta itunen bidez lortutakoa baizik.

2. Era berean, partaide guztiak, bi Gobernuak barne, inplikarazi behar zituen. Beraz, hantxe egon behar zuten elkarrizketa, negoziazio eta itun bidezko metodoa defendatzen zuen tradizio bakezaleak eta, irlandar herriaren independentzia eta eskubideak helburu, indar fisikoaz baliatu beharra defendatzen zuen tradizioak. Finean, gatazkako partaide guztiek esku hartu behar zuten erabakietan: autodeterminazio agerpide bat izango zena

Gatazkako alderdi guztiek eta bi Gobernuek hartu behar zuten parte

elkarrizketan. Taxu horixe eman behar zitzaion elkarrizketari. Batetik, bakezaleak genituen, metodo baketsuak erabiliko zirelako (elkarrizketa, negoziazioa...) pozik zeudenak, eta bestetik, iraultzaileak, pozik ere, Irlandaren autodeterminazio agerpidea izango zelako, alderdi guztien esku-hartzeaz.

3. Gatazkaren ebazpenerako, pertsona guztien (nazionalista, unionista, ingeles zein irlandarren) eskubide demokratikoak errespetatu eta orekatuko zituen beste akordio bat taxutu behar zen, gatazka honen muinean historikoki izandako harremanak onbideratu edo berreratzeko giroa sortzeari begira. Hortaz, bat zetozen guztiak akordioak, nazionalisten eskubideak ez ezik, partaide guztien eskubideak aintzat hartu behar zituenarekin.

Metodoa partaide guztien arteko elkarrizketan, negoziazioan eta akordioetan oinarriturikoa izango zen: irtenbide demokratikoa, alegia. Oso gauza handia zen hori, Amerikara, Europara edo beste edonora joan eta bakea lortzeko estrategia nazionalista defendatzen ari garela esaten dugunean, mundu guztiari ondo iruditzen zaiolako, sendotasuna erakusten duelako. Baina hori gatazka honek ukitzen dituen hiru alderdiek hainbat urtez negoziatu ondoren lortu zen. Horixe izan zen estrategia bateratua. Eta demokratikoa zen, ikus dezakezuen legez.

Estrategia abiaraztea: Downing Street-eko adierazpena

Gobernu irlandarrak, SDLPk, Sinn Feinek eta unionistek estrategia abian jartzeko erabakitako lehen urratsa bi Gobernuak (britainiarra eta irlandarra) elkartzea izan zen, adierazpen bateratua egin zezaten. Horretan irlandarren Autodeterminazio eskubidea onetsi behar zen, bai eta Irlandan Autodeterminazio eskubidea erabiltzeko moduari buruz zatiketarik bazegoela onartu ere.

Bi Gobernuen eginkizuna elkarrizketa erraztea zen, akordioa ahalbidetzeko xedez. Gobernu ingelesak irlandarrarekin negoziatzeko prestu egotea bera (Gobernu ingelesak irlandarrei zer egin behar zuten esan gabe) berebizikoa zen: bi gobernuek esango zuten arazoa elkarrekin nola konpondu. Horixe izan zen Downing Street-eko Adierazpena, 1993an.

Downing Street-eko Adierazpenean Irlandako herritarren Autodeterminazio eskubidea onesten zen (hitz gutxitan, baina beren beregi). Era berean, alderdi sozial eta politiko guztien arteko elkarrizketa sustatzeko konpromisoa ere hartzen zuten, guztien eskubideak orekatu eta asebetetzeko moduari buruzko akordioa lortzekotan.

Bada aipatu beharreko xehetasun bat: Gobernu irlandarrak, Sinn Feinek eta SDLPk adierazpenaren taxua adostu zutenean, ingelesek zer esatea nahi zuten ere jaso zuten idatziz, Gobernu britainiarrak eta irlandarrak adierazpen hori

eginez gero IRAk borroka armatua eten egingo zuela ulertaraziz; hau da, hiruen arteko akordio horrek IRAk, gerotsuago, su-etena aldarrikatzea eragingo zuen.

IRAren su-etena

Proposatutako adierazpena leundu egin zen eta horrek istiluak ekarri zituen berriz. Irlandarrek jatorrizko adierazpen hartara berriro hurbiltzea lortu zuten, baina emaitza leunegia zen IRAk berehala erantzun zezan, eta su-etena ez zen iritsi Downing Street-eko Adierazpena hitzartu eta sei hilabetera arte.

Jakinarazi beharreko sakoneko ideiak

Zaila egiten zait zertaz mintzatu aukeratzea. Interesatzen zaizuenaz hitz egin nahi dizuet. Baina,aldi berean, historia, Irlandako bake prozesuaren historiaren giltzak ere helarazi nahi dizkizuet. Euskal Herriko gatazka gurearen ezberdina bada ere, espero dut gure esperientzian oinarrituz hainbat ideia aurkitu ahal izan dezazuen.

1.

Gatazka ulertu beharra

Hasteko esango nuke ziurtatu egin behar dugula gatazkaren xehetasun guztiak ulertzen ditugula. Gatazka bat konpontzen esku hartu nahi badugu, zuzen-zuzeneko informazioa, bene-benetakoa, izan behar dugu gatazkari buruz. Egunkarietan

irakurtzen dena propagandaz tindaturik azaltzen da maiz. Soilik gatazkaren erdigunean egonik uler ditzakegu haren giltzak. Elizako kideekin mintzatzen arituz gero, Gizakundearen Printzipioa mantendu behar dela esango nuke: "Berba haragitu egin zen gure artean". Gatazka bizi ez badugu, beraren dinamikatik aldentzen bagara, nekez izango dugu benetan lan egiterik. Barru-barrutik ezagutu behar dugu. Lehen alderdi garrantzitsua da hori.

2.

Elkarrizketa, baketzerako bide

Bigarren ideia: elkarrizketa da baketzerako bidea, oso komunikazio bide zehatza, berezia, eta, nire ustez, Eliza oso ona da horretan. Elkarrizketa areago oinarritzen da entzutean hitz egitean baino. Elkarrizketak entzuteko parada ekartzen du. Aurrean ditugunekin gatazka izan arren, entzun egingo diegu, zer jarrera duten, haien arazoak zertan diren, gurekiko gatazkaren erroa zein den jakiteko, bide erkideak non aurki daitezkeen pentsatu ahal izatearren.

3.

Oinarrizko printzipioa: gizakiaren duintasuna

Eta aipatutakoa loturik dago nire iritziz bake prozesu guztien funtsa izan behar duenarekin: gizakiaren duintasunarekin eta gizakiari zor zaion begirunearekin, hau da, Jainkoaren arabera gizakiari dagozkion eskubide eta askatasunekin.

Horixe da oinarrizko printzipioa: gizakiaren duintasuna. Ezin dugu begirunearen aurka jotzen duen edo berori iraintzen duen ezer egin. Hots, gure helburuak pertsoneri entzutea da, ez unionista edo laborista diren aldetik, arazo bat duten gizakiak diren aldetik baino, ulertu egingo ditugula bermatzen saiatuz.

Honelako gatazka batean inork ez du oso osorik egia bere alde; bakoitzari egiaren zati bat dagokio. Batzuei besteei baino zati handiagoa, agian, baina bortitzenek ere badute euren egi zatia. Eta, zer egin behar da? Entzun egin behar dugu, esaten ari direnetik egia zer den aurkitu ahal izateko eta, egia dena edozer izanik ere, guztiok egon ahal izango gara ados horretan, egia denarekin guztiok egon beharko dugulako ados. Izan ere, honelako gatazka baten irtenbidea egi zatitxo guztiak batzean datza. Horrexetaz ohartu gara gu: irtenbidea gatazkari buruzko euren ikuspegia aurkezten diguten pertsoneri entzunez lortzen da. Ebazpideak gainerakoei entzunez sortzen dira. Beraz, elkarrizketa da adostasuna lortzeko funtsezko bidea.

4.

Herriaren adostasuna

Herriaren aldeotasuna da benetako irtenbidea. Horixe izan zen Irlandako bake prozesu osoaren giltza, prozesua abiarazi zuen eragilea: alderdi nazionalisten arteko adostasuna. Haietako buruzagiek, Jhon Hume, Gerry Adams eta Gobernu irlandarrak (eurak ziren Irlandako herritar

nazionalisten buruzagiak) jarrera bateratu adostu eta herriari esan zioten ondoren, eta herriak bultzatu egin zituen. Nire iritziz, hori funtsezkoa da. "Herria maite dugu eta herriaren jarrera izango da boterea, gizarte demokratikoaren azken jardunbidea".

Aitzindari nazionalistek estrategia bat eratu zuten; herritar nazionalistek bazekiten, senez, horixe zela ibili beharreko bidea, eta bultzatu egin zuten. Nazionalisten %94k eman zion aldeko botoa Ostiral Santuko Hitzarmenari. Horixe deritzat neuk benetako jardunbide alternatibo: herritarren aldekotasanari, jendearen atxikimenduari. Baina horrek aitzindaritza ona eskatzen du.

Hauxe zen IRArekin erabiltzen genuen argudio handia: "begira, egiten ari zaretena nazionalistak banantzea da, zeuek darabilzuen indarkeri bidetik ez dizuetelako jarraituko haietako gehienek. Berrantolatu egin behar duzue zeuen indarra; indar gehiena arazoa konpontzera zuzendu behar duzue, zeuen artean borrokatzen eman beharrean."

Ingalaterrak, antzina, zatikatu eta irabazteko estrategia horixe (nahiko inperiala) erabiltzen zuen konkistatzeko. Hortaz, guk honakoa esaten genien irlandarrei: "inperialismo britainiarrak izan zuen tresnarik onena bere hizkuntzaren erabilpena izan zen". Adibidez, Irlandaren kasuan, ingelesei IRAk bere horretan segitzea interesatzen zitzaienten, irlandarrak zatikatzen ari zenez, eragotzi egiten

zuelako irlandarrek benetako estrategia bat antolatu ahal izatea.

Adostasuna berebizikoa dela azaltzea da nire asmoa; horregatik, buruzagiaren esku egongo da herritarren aldekotasuna sorraraztea. Izan ere, aitzindariaren arteko adostasuna ez ezik, herriarena ere behar baita. Herriaren aldekotasuna izanez gero, ezer ere ez gaitu geraraziko. Ostiral Santuko Hitzarmenak ezin zuen porrot egin, edozer eginda ere, herriaren indarrak, nazionalisten atxikimenduak, eusten ziolako.

Bada, laburbil ditzagun orain arte aipatutako ideiak: elkarrizketa sortu, gatazka barrenetik ezagutu eta adostasuna lortu, ezein gatazka mota ezin baita konpondu, barne zatiketarik badago.

5.

"Gizonezko-emakumezko" jarduna

Bada ikasi dudan beste ideia bat, honelako gatazketan ez ezik, egoera anitzetan erabiltzen dena. Nik "gizonezko-emakumezko jarduna" deritzat. Ez dut neuk deskribatu. Zinez uste dut gizonek, edo bereziki gizonek, antolaturiko gizarte orotan arazoak sortzen direla. Gauza bera gertatuko litzateke gizarte emakumeek bakarrik edo batez ere emakumeek antolaturik balego. Orduan ere sortuko lirateke arazoak.

Giltza gizonezko eta emakumezkoen jarduna bateratzea da, nik uste, gizonezko eta emakumezko baliabideak elkartu eta batera lan egitea. Horixe da gizarte aske,

demokratiko eta bidezkoa eratzeko biderik onena. Agian ez dut oso ondo azaldu, baina irlandarrok esperientziaz dakigu hori hala dela.

Esaterako, Elizaren lanetan, sekula ez dugu bilerarik antolatzen emakumeen oreka lortu gabe ez edozein emakume, jakina, zertan ari garen dakiten emakumeak baizik. Horrela, gizonezko ñabardurak eta emakumezko ñabardurak dituen aholkularitza moduko bat dugu. Eta horrek egiten saiatzen ari garenaren irudi argiagoa ematen digu, lortu nahi dugunerako konpromisoetara eramanez.

Historian zehar ehunka gerra izan da munduan; Ipar Irlandan makina bat gatazka urte izan dira... Nire ustez, borroka guztietako erabakiguneetan mundu gerretakoak barne emakumerik izan balitz, arazoan erdia ere ez genukeen izango. Gizonezko/emakumezko oreka lortu ezean ez dugu aurrerapauso asko emango.

Erabakiguneetan emakumeek parte hartu izan balute, gehienetan kalitate handiagoko akordioak izango genituzkeen. Ez genuen erdizkako irtenbiderik nahi. Eta uste dut Elizan denari aplikatzen zaiola hori. Horixe da, beraz, Irlandako prozesuaren irakaspenetako bat: bidezko gizartea nahi badugu, emakumeen iritziak gizonenak beste entzun behar dira haren antolakuntzaren gainean.

6.

Espirituaren jardunbidean

Eta, azkenik, bada aipatu nahi dudan beste puntu bat, sinestunon ikuspuntutik garrantzizkoa dena. Guk beti heldu diogu Espiritu Santuaren laguntzari. "Nola doaz gauzak?" galdetu ohi zidan jendeak. Eta nik: "Beno, Espiritu Santuaren arabera". Gure apaizetako batek, historiagilea bera, honelaxe esaten zidan: "Nola doaz gauzak? Eta ez aipatu Espiritu Santua!".

Guk sarritan erabiltzen dugu esaldi hori, baita Gerry Adamsekin ere. Hona hemen pasadizo bat, hitzaldiari umore ukitua ematearren. Sinn Feineko norbaitengandik, bereziki Gerry Adamsengandik, zer gertatzen ari zen jakin nahi banuen, telefonoz deitu eta "Non eta zer moduz ari da une honetan Espiritu Santua jokatzeko?" galdetzen nion eta, batzuetan, berak haxe erantzuten zuen: "Une honetan etsaiaren aldean dabil". Orduan bagenekien arazoak zeudela. Aitzitik, Espiritu Santua gure aldean, edo zelai erdian, ibiliz gero, gauzak bide onean zihoazen.

Pasadizo gisa kontatu dizuet, baina erantsi behar dut guk benetan sinesten dugula beraren eraginkortasunean. Pertsonetikiko elkarrizketa eratzen denean, jendeak benetan merezi duenaren eta ona denaren alde lan egin behar dugula uste dugunean, Jainkoaren boterea elkarrizketan aurkitzen delakoan nago. Jendeak Jainkoarengan sinetsi ala ez sinesteak berdin dio, elkarrizketan ari badira, zuzen jokatzeko

saiatzen ari badira: Jainkoaren Espiritua haiengan dago eta, Jainkoaren Espiritua haiengan badago, aurrera segitu behar dute.

7.

Ezezkorik ez onartzea

Ez dezagun ezezko erantzunik onar; beti dago beste irtenbiderik, beti dago arazo batentzako konponbidea, horixe geure patuaren osagaietako baita.

Sinesten dut salbazioan. Kristau bagara, sinetsi egin behar dugu Jainkoak salbatu egingo gaituela; Jainkoak konponduko ditu arazo guztiak. Guk geuk irtenbidea bilatu besterik ez dugu behar, jadanik hor nonbait badagoen irtenbidea. Beraz, bestela esateko, ez galdu itxaropena, beti dago-eta irtenbideren bat. Beti dago bat, aurrera segitu besterik ez da behar, ados?

Agian berba gehiegi egin dut, baina zinez espero dut helarazi nahi izan dizuedana ulertu izana edo, gutxienez, esan dizuedanaren erdia. Eskerrik asko.



Oharrak

A series of horizontal dotted lines for writing, spanning the width of the page.



Oharrak

Handwriting practice lines consisting of multiple horizontal dotted lines.